

## Epaile horiek



Bixente Serrano Izko  
IDAZLEA  
@Bixentesi

**E**paile horiek, zeinek uste duten Babel Dorrekoa Deabruak ezarri zigun zigor bat izan zela eta gu berrerosi eta euren paradisuko hizkuntzara eram behar gaituztela.

Epaile horiek, zeinen gustuko *hablar en cristiano* lelo zaharraren nostalgia erlijioaren dogmak bezain misteriosua den.

Epaile horiek, zeinen bi hizkuntzaren koofizialtasunari buruzko kontzeptua bien arteko hierarkia bat ezartzean datzan.

Epaile horiek, zeinek 2. mailako hizkuntza koofizialaz ez duten zertan ezer jakin, salbu-eta hizkuntza hau nola kateatu legez menderaturiko mailari.

Epaile horiek, zeinentzat bigarren mailako hezkuntza koofizialaz egiten dugunok feudalismoko halako aztarna bizidunak garen, oraindik ere halako jopuak, guk nahita glebari lotuta.

Epaile horiek, zeinek diskriminazio kargua betiere bigarren mailako hizkuntza koofizialari hartzen dioten lehen mailakoaren pareko koofizialtasuna lortzeko ahalegin ororen aurrean.

Epaile horiek, zeinen ustez administrazio publikoko lan-harremanek ez duten zertan izan 2. mailako hizkuntza koofizialaz, honen ezagutzaren baldintza onartuz, gehienez jota, sentimendu paternalista ezin esku- eta bihotz-zabalago batekin herritar koitaduekiko harremanetarako.

Epaile horiek, zeinentzat bigarren mailako hizkuntza koofizialaren hiztunok bigarren mailako herritarrok garen.

Epaile horiek, zeinen elebitasun koofiziala hizkuntza hegemonikoaren talaiatik baizik ulertzen ez duten.

Epaile horiek, zeinentzat elebitasun koofiziala traba nekagarri bat baizik ez den euren justizia-zerbitzu sagaratua betetzerakoan.

Epaile horiek, zeinen betekizun zibilizatzailea euren hizkuntza koofizial bakarraren abantailak guri barneratu araztean datzan, antzarei arto-orea nola, holaxe guri lege-inbutuekin.

Epaile horiek, zeinentzat 2. mailako hizkuntza koofizialeko hiztunok bazter-nahasle apetetsuak baizik ez garen eskubidedunak izan barik.

Epaile horiek, zeinen meritu literario bakarra argudiatzeak bihurtzean datzan, euren testuetan kriptikotasunaren maisu gaindiezinak agertzeraino, “denok ulertzen dugun” hizkuntza koofizial bakaurrean, zer erranik ez.

Epaile horiek, sofistikazio gutxiokoak elebitasunaren koofizialtasun hierarkizatuaren aldeko euren sofisma elebarkarreoetan.

Epaile horiek, zeinek euren toga beltzez gustura estaliko luketen 2. mailako hizkuntza koofizialaren zerraldoa, hizkuntza hil berri baten omenezko dolu egiten.

Epaile horiek, zeinen garuneko gai grisa euren epaietako kontuan-hartuzkoen eta argudiatzeen erredakzioa bezain opakua den.

Epaile horiek, zeinen elebitasuneko soziolinguistikaren ezagutza euren justizia sena bezain eskasa den. ■

## Sanferminak, herritik turistarentzat



Itziar Bardaji  
Goikoetxea  
IRAKASLEA

**B**izitza ziklikoa da. Amestu, planifikatu, gauzatu, ospatu. Ospakizunak indarra ematen digu hurrengo ametserako. Festak, musika eta dantzak, eta drogak, anaitzen (*ahizpatzen* eta *nebarrebatzen*) gaitu. Alaitasuna lehertzen utzi gabe ezin eutsi bizitzaren gogortasunei.

Hamaika ospakizun formen artean, herrietako jaiak. Herrikoek lana utzi eta elkarrekin gozatzeko momentua. Badatoz *Sanferminak*.

Nire inguruko planak aztertu ditut. Etxea osatu bihurtu, bederatzir egun jarraian. Hamar orduz taberna batean lana edo ihes egin, poltsikoak (edo baten batek) ez baitu aguantatzen. Hainbat kolektiboren ahaleginak gutxietsi asmorik gabe

esan dezakegu: prekarietatea, masifikazioa eta turistifikazioa direla medio, urteak dira *Sanferminak* ez direla herritik herriarentzat, nagusiki kanpokoentzat baizik. Bertakoentzat, aldiz, lan kaskarrak: betikoen etekinerako zerbitzuen sektorean.

Urte osoan alde zaharrean turista taldeak ikusten dira, hiriaren irudi, historia eta bitxitasunak kontsumitzeko egarriz. Carrefour Express, Burguer King, Viandas de Salamanca, izozkiak, pizzak, erromesendako dendak eta kamiseta zurri-gorriak. Hasi da prozesua: auzoa ez da izanen auzokoentzat, nagusiki kanpokoentzat baizik.

Bertakoentzat aldiz... ■